

Literatur uzta joria

[Egile ezezaguna]

Euskaldunon Egunkaria, 1997-11-01: 13.

Martin Ugaldek lan oparoa egin du literaturgintzan. 30 liburutik gorako multzoa osatzen du haren obrak. Narrazioa eta saiakera landu ditu batik bat, eta antzerkian ere egin ditu sartu-irten batzuk. Horrezaz gainera, historia eta kazetaritza lan ugari ditu argitaratuak.

Saiakeren artetik, *Unamuno y el vascoence da, seguruenik*, Ugaldere lan ezagunena. Unamunok gure hizkuntzari buruz zuen iritzia hankaz gora bota, eta euskararen baliagarritasuna defenditzen du Ugaldek. Kontuan hartzekoa da non eta zein urtetan azaldu zuen tesi hura: Caracasen eta 1966 urtean.

1980 urtean eta Euskal Herrian idatzi zuen, aldiz, *El problema vasco y su profunda raíz político-cultural*, Ugaldere beste saiakera.

Narraziogintzan ere fruitu bikainak eman ditu andoaindarraren uztak, *Las brujas de Sorjin* eta *Pedrotxo eleberriak* horren lekuko. Baina alerik bikainenak, inondik ere, ipuingintzan eman ditu Ugaldek. Kritikarien arabera, maisutasunez aritu da jenero horretan; inork baino hobeto jakin du narrazio laburren teknika menderatzen. Horregatik euskal ipuingintza modernoaren aitzindaritzat jotzen dute askok, horien artean Koldo Izagirrek eta Ander Lertxundik.

Lertxundiren arabera, "Martin Ugaldere Iltzalleak da ahozko tradizioarekiko lotura zuzenetik zein kostumbrismoaren bidetik desbideratzen eta bide propioa egiten ahalegintzen den lehendabiziko ipuin bilduma". Izagirrek ere Ugalde idazle garaikidea dela aldarrikatzen du, "neolizardismoak eta herrixkatasunak hartutako literatura uzkur, herabe, lainogile hura" ukatzen duena.

Iltzalleak da, hain zuzen ere, Venezuelan inoiz idatzitako euskarazko lehen liburua. 1961ean argitaratu zen. Titulu horrezaz gain, beste bost ipuin bilduma ditu gaztelaniaz idatziak, eta beste hainbeste euskaraz, azkenekoa Erretiradako trena egunkariak gaur aurreratu eta Ugaldek berak astelehenean aurkeztuko duena.